



OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

# Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseiluaren informazio- buletina



E-mail: [cvfcps-san@ej-gv.es](mailto:cvfcps-san@ej-gv.es) - Web: [http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkinve02/es/contenidos/informacion/formacion\\_continua/es\\_1265/for04\\_c.html](http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-pkinve02/es/contenidos/informacion/formacion_continua/es_1265/for04_c.html)

2016ko iraila. 4. alea

## Ale honetan:

**Osasun Sistemaren  
Etengabeko  
Prestakuntzarako  
Batzorde Nazionalak  
hartu dituen  
azkeneko  
erabakiak:**

- Osagai kualitatiboaren hurrenkerari buruz
- Osagai kualitatiboa baloratzeko tresna berriari buruz

**Lanbide Sanitarioen  
Etengabeko  
Prestakuntzarako  
Euskal Kontseiluan  
tresna berriaren  
inplementazioa**

## Kontseiluaren oharra

Kontseiluaren informazio-buletinaren 4. Alea kaleratzen dugu gaur. Beronen asmoa dugu hornitzaile diren entitateen artean, eta ebaluatzaileen artean zabalteza, Osasun Sistemaren Etengabeko Prestakuntzarako Batzorde Nazionalak hartu dituen akordioak.

Etengabeko Prestakuntzarako Batzorde Nazionalak berdinak diren irizpideak, eta sistema osoan jarraitu beharrekoak, ezartzen ditu, lanbide sanitarioen etengabeko prestakuntza antolatzeko, hala nola prestakuntza jarduerak kreditatzeko jarraitu behar diren **betebeharrak, prozedura eta irizpideak**.

Bere 2015ko azaroko bileran Batzordeak onartu zuen osagai kualitatiboa baloratzeko kontuan hartzen diren irizpideen hurrenkeria. Honen berria orain ematen badizuegu ere, aplikazio informatikoan 2016ko martxotik aurrera duzue ikusgai. Lehenengo lekuan dago orain jardueraren **EGOKITASUNA**, gero **HELBURUAK**, hirugarren tokian **IRAKASKUNTZA METODOLOGIA**, hurrengo **EBALUAZIOA**, eta azkenek, **ANTOLAMENDUA ETA LOGISTIKA**.

Geroago, 2016ko ekainaren 8ko osoko bilkuran onartu zuen etengabeko prestakuntzako jardueren osagai kualitatiboa baloratzeko tresna berria, 1998tik erabili izan dena ordezkatzeko duela. Tresna berria Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzako **Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak berretsi du** 2016ko uztailaren 6an, hala nola berau gure sisteman ezartzeko egutegia:

- **Batzorde Iraunkorraren** onespina (2016/07/07))
- **Tresnaren zabalketa** hornitzaile diren entitate eta ebaluatzaileen artean (2016ko irailean)
- **Ebaluatzaileen prestakuntza** (2016ko irailean)
- Entitate **hornitzaileekiko bilerak** (2016ko irailean)
- 2016ko **urriaren 1etik** geroztik kreditatzeko aurkezten diren eskabideak ebaluatuko dira tresna berria erabiliz.

# Osagai kualitatiboa baloratzeko tresna berria

## Elaborazioa

Etengabeko prestakuntzako kredituak kalkulatzeko ez da kontuan hartzen bakarrik denbora (Osagai kuantitaboa), prestakuntzako kalitatea aztertzen da (Osagai kualitatiboa), eta hau egiten da orain dela ea 20 urte sortu zen eskala baten bidez. Eskala honen berrikustea, beraz guztiz egoki ikusten zen.

Hau horrela izanda, Lanbide Sanitarioen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseiluko Ebaluazio Batzordean hasi ginen, 2012an, osagai kualitatiboa baloratzeko eskalaren azterketa. Gure zioa izanik, tresna zehatzagoa, eta anbiguotasunarik gabekoa lortzea. Ebaluatzaileen artean adostasun maila handiagora heltzeko.

Prestakuntza jarduera kreditatzeko kalitatearen balorazioa hiru aditu diferentek egin behar dute. Aditu bakoitzak 5 aldagai puntuatu behar dute 5 erantzun mailako Likert eskala bati jarraituz. (0/1/2/3/4)

## Osagai Kualitatiboaren ponderazioa:

Baloratzen diren irizpideek ez dute garrantzia bera eta hurrengo ponderazio sistema erabiltzen da.

- 1.- **JARDUERAREN EGOKITASUNA** x 2.0
- 2.- **HELBURUAK** x 1.0
- 3.- **IRAKASKUNTZA METODOLOGIA** x 1.5
- 4.- **EBALUAZIOA** x 1.5
- 5.- **ANTOLAMENDUA ETA LOGISTIKA.** x 1.0

Gure Batzordeak egindako eskala 2015ko ekaineko Madrileko idazkaritza Teknikoen jardunaldieta aurkeztu genuen. Prestakuntzarako Batzorde Nazionalak lantaldea sortu zuen tresna berria elaboratzearen mandatuarekin. Lantalde hau gure Autonomia-erkidegoak koordinatu du eta parte hartu dute zenbait Autonomia-erkidegok (Andaluziak, Kantabriak, Kataluniak, Madrilak eta Nafarroak) eta Osasun Ministerioak.

Lau bileretan zehar landu egin dugu informazio-buletin honetan aurkeztu dugun baloratzeko tresna, zein Etengabeko Prestakuntzarako Batzorde Nazionalak onartu baitzuen Madrilan, 2016ko ekainaren 8ko osoko bilkuran.

Tresna berri honen iraunkortasuna ez da amaigabea eta, beraz, etengabeko azterte prozesuan izango da, honela Kreditazioaren sistemaren beharrei aurre egiteko prest egongo da.

## Goreneko puntuazioa

Prestakuntza jardueraren osagai kualitatiboak lor dezakeen goreneko puntuazioa **2,8** dugu. Kreditazioa eskuratzeko gutxieneko puntuazioa atal honetan **1** da.

Jarraian azalduko ditugu item bakoitzean puntuazioak emateko irizpideak.

## Jardueraren egokitasuna

**Prestakuntza jardueraren edukiak, behar bezala azaldutako eta arrazoitutako behar edo eskakizun zehatz bati erantzun behar dio**

- 0.0 **Befe Gabe** (hutsik. Ez litzateke balorazio fasera pasatu)  
Ez dagozkio prestakuntza jarduera zuzentzen zaion **lanbideari**  
Ez du zerikusirik **gaiarekin** edo baloratu behar direneko alderdiekin
- 0.1 Aurkitu den arazoa **deskribatzen da** baina erabilitako **arrazoiak ez dira batere argiak** (emandako arrazoiek arazo diferenteak justifikatzeko balio dute), **detekzio-metodoak ez dira zehatzak**. Ez dira justifikatzen
- 0.2 Aurkitu den arazoa deskribatzen da eta prestakuntza jardueran parte hartuko duten **profesionalen testuinguruan** edo errealtatean kokatzen da. Detektatutako beharrei buruzko **erreferentziak** ematen dira eta **detekzio-metodoak zehazten** dira.
- 0.3 **Aurrekoa** betetzen da **eta gainera** detektatutako arazoa deskribatzeko erabiltzen diren **erreferentziak egiaztatu daitezke**.
- 0.4 Arazoari **konponbidea** nola eman **zehazten da** eta prestakuntza jarduera egitearen **onura** adierazten da.

## Prestakuntza jardueraren helburuak

Jardueraren helburuak ondo adierazi behar dira.

Helburu orokorrak eta espezifikoak bereizi behar dira

Orokorrek prestakuntza-helburu zabalari dagozkio, espezifikoek zehazten dute zein etengabeko prestakuntza arloari ematen zaion lehentasuna (lortu nahi diren trebetasun edo gaitasun zehatzak, jarrerak, ezagupenak...)

- 0.0 (hurrengo aukeretako edozein)  
Ez dute azaltzen **zer lortu** nahi den  
Ez dute zerikusirik jardueraren **edukiarekin**  
Ez dute zerikusirik jarduera zuzentzen zaie **profesionalekin**  
Ez dute zerikusirik detektatutako **beharrarekin**
- 0.1 Ikastaroaren **izenburua** jardueraren helburu orokorrekin **lotuta dago**. (jardueraren edukiekin loturik)  
**Helburu orokorrak ulertzen dira** eta jardueraren asmoa adierazten dute. **Helburu espezikoak ez dira argiak** edo edukien aurkibidea dirudite
- 0.2 Helburu **orokorrak** esaldi gutxitan adierazita daude, **zehatzak** dira, **ulergarriak** eta parte hartzaileei **egokituta**.  
Helburu **espezifikoek** orokorrak **operatibo bihurtzen dituzte** eta edukiekin lotuta daude (ekintza eta edukia agertzen dute, nahiz eta **ezagupenenetara** bakarrik zuzentzen diren).  
Helburuak **eskuragarriak** eta **neurgarriak** dira
- 0.3 **Aurrekoa** betetzen da **eta gainera...**  
Helburu espezifikoek orokorrak operatibo bihurtzen dituzte lortu nahi den **gaitasuna** adieraziz.  
Jardueraren **iraupenera** eta **parte-hartzaileen kopurura** egokituta daude.
- 0.4 **Aurrekoa** betetzen da **eta gainera...**  
Helburuek eragin argia dute detektatutako **arazoa konpontzeko**.  
Lortu nahi den **kompetentzia adierazten dute**, ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak barne hartuz

# Irakaskuntza metodologia

Garrantzi handikoa da baloratzea irakaskuntza metodologia nola egokitzen den lortu nahi diren helburuetara, eskura dauden baliabideetara eta partehartzailerik zein irakasleen arteko harremanetarako esparrua.

## Kontuan hartu beharrekoa:

**Presentziatzko zein ez-presentziatzko** jarduerak balorazio **berdina** dute. Baina ez-presentziatzko jardueretan zein jarduera mistoetako alde ez-presentziatzkoetan, hurrengo alderdiei garrantzi berezia eman beharko zaie (Ikus on-line jardueren-gida)

Irakaskuntza metodologian oinarritako **kontzeptu bi** ebaluatu behar dira:

a) **Edukiak**; beren hornidura, kalitatea eta kudeaketa.

b) **Harremanetarako esparrua**; elkarrizketa, eztabaida, gogoeta. Ikastea ez da banakako prozesua, baizik besteekin batera lortzen den arrakasta.

- Tutorearenganako eskuragarritasuna (noiz, nola)
- Tutoretza mota: presentziatzkoa, postaz, telefonikoa, telematikoa.
- Harremanetarako esparrua deskribatu denborari begira (sinkronikoa/diakronikoa) eta bideari begira (noranzko bakarra zein biko)
- Galderak erantzuteko denbora (48-72 ordu).
- Baliabide osagarriak dauden: euskarri-materiala, txatak, eztabaida-lekuak, ...
- Ikasleari feedback emateko moduak (laguntzak, bere aurrerapenaren berri nola eman-erantzun zuzenak jarri)
- Autoikaskuntzarako materialaren kalitatea. Jarduerarako berriazko diseinatutako materiala.
- Segurtasun sistema – ikaslearen sarbide kontrola
- Ezagupenak- ikaskuntza ebaluatzeke sistema
- Ikaslea eta tutorearen arteko harremanetarako sistema.

## ...metodologia

Erabilitako irakaskuntza metodologia:

Nola puntuatzen den...

- 0.0 **Ez da egokitzen helburuetara**  
**Ez dago antolakuntzarekin koherentziarik**  
**Ez dago harremanetarako esparrurik**
- 0.1 **Helburuekin zerikusirik du**  
Errealitatearen **simulazio maila oso baxua** (lanpostutik urruti) Ikasle / irakasle harreman gutxi
- 0.2 **Bada** ikasle-irakasleen arteko **harremanetarako** eta ikasleen arteko harremanetarako **esparrurik** eta esparru hau jardueraren egitarauan **agerian da**. Planteatu den harreman maila aurrera eramateko **baliabideak egokiak** dira.
- 0.3 **Elkarlanak**, kasu praktikoak, simulazioa, tailerrak, role-playing.
- 0.4 **Benetako egoerak** edo errealitateetik oso hurbil dauden kasuak (debriefing -praktikari buruzko gogoeta- eman behar da).

# Ebaluazioa

Garrantzitsua da oso, zein ebaluazio mota erabiltzen den adieraztea: parte hartzaileen ebaluazioa, irakasleen ebaluazioa edo jarduera beraren ebaluazioa (euren helburuei, edo prozesu formatiboari begira)

## Kontuan hartzeko:

Gogobetetasun inkesta beharrezkoa da eta 0.1 puntuazioa eskuratuko luke, baldin eta hurrengo alderdiak neurtzeko galdera nahiko eta egokiak baldin baditu: antolakuntza / baliabideak / irakasleak / irakaskuntza metodologia eta parte-hartzaileen lanpostuetan erabilgarritasuna)

## Proposatzen den puntuazio mailak

0.0 **Ebaluatzeke fresnek ez dituzte betekizunak betetzen:**  
**Inkesta ez da egokia** baloratzeko antolakuntza / baliabideak / irakasleak / irakaskuntza metodologia eta parte-hartzaileen lanpostuetan erabilgarritasuna **eta ikaskuntza neurtzeko sistema ez da aproposa jarduera horretarako.**

0.1 *Gogobetetasunaren ebaluazioa (inkesta)*  
Inkestak galdera nahiko izango du baloratzeko **antolakuntza / baliabideak / irakasleak / irakaskuntza metodologia** eta parte-hartzaileen lanpostuetan **erabilgarritasuna**

0.2 **Ikaskuntzaren ebaluazioa (ezagupen maila)** Amaierako kalifikazioa egongo da eta beharrezkoa izango da gutxieneko maila gainditu. Urrutiko jardueretan derrigorrezkoa izango da ezagupenen ebaluazioa.

Ebaluazioaren ezaugarriak:

**Ezagupenak ebaluatzeke probak.** (gainditu behar dira egiaztagiria lortzeko), **Zuzentzeko** erabiliko den **txantiloia** aurkeztu behar da.

Test moduko azterketak: jardueraren iraupena 2 ordu baino gehiago eta 5 ordu baino gutxiagokoak bada, 10 galdera bederen izango ditu. Hortik aurrera galdera bat orduko: 6 ordu 11 galdera; 7 ordu 12 galdera. Galdera itxiak izatekotan 4 hautabide ipiniko dira. Egia/gezurteko galderak ez dira onartuko. Erantzun zuzenen portzentajeak: zoria zuzentzeko formularik erabiltzen bada, ehuneko 70%a gutxienez exijituko da, bestela ehuneko 80%a.

0,3 **Ikaskuntzaren ebaluazioa (konpetentzia maila:** ezagupenak, gaitasunak, jarrerak eta baloreak osatuz). Amaierako kalifikazioa egongo da edo irakaslearen feedback ematen duen txostena.

Ebaluazioaren ezaugarriak:

**Ezagupenak, gaitasunak eta jarrerak integratzen duen proba, benetako testuinguruan** edo simulatutako egoeran. Aurkeztu behar da **ebaluatzeke txantiloia** edo irakasleak feedback emateko txosten eredu eta gainditzeko betekizunak.

0,4 **Transferentzia edo eraginaren ebaluazioa**

**Transferentzia** ebaluatzeke:

Irakaskuntza **Lanpostura transferitu den** egiaztapena, **benetako testuinguruan.** Egiaztapena ikasleak lan egiten dueneko erakundeak zein prestakuntza eman duen entitateak egina izango da.

**Eragina** ebaluatzeke:

Eragina neurtzeko **objektiboak eta frogagarriak** diren **adierazleak** erabiliko dira. **Jarduera aurreko eta osteko** emaitzak aurkeztuko dira.

# Antolamendua eta Logistika

## Kontuan hartzeko:

Prestakuntza jardueraren batean, **antolamendua eta logistika** atalak duen asmoa da bermatzea aurreikusitako ekintza guztiak, beren momentuan eta dagokien moduan, garatu daitezkeela.

Bereziki garrantzitsua da metodologia didaktikoez eta ebaluazioaz aritzen bagara.

Antolakuntzan agerian izan behar da irakaskuntza-helburuak eta metodologiaren arteko koherentzia.

*Antolamendua eta Logistika baloratzeko hurrengo elementuak nabarmenduko ditugu:*

- Jardueraren iraupena**
- Edukiak**
- Irakaslearen profila**
- Irakasle / ikasleen arteko proportzioa**
- Baliabideak**
- Irakasleak hautatzeko metodoa**

**Kontuan hartuak izateko, elementu hauetako bakoitzak gutxienezko maila edo konfigurazioa erdietsi behar du, jarraian adierazten direnak hain zuzen**

## Gutxienezko maila edo konfigurazioa

### 1.- Jardueraren iraupena:

Denborak eragina zuzena du irakaskuntzan. Prestakuntzaren kalitateko garrantzitsua dira irakaskuntza orduak eta nola banatzen diren: teorikoak, praktikoak, norberaren lana, lantaldeak, zein luzea de jardunaldia, etab. Erdietsi behar diren gutxienezko maila edo konfigurazioa jarraian adierazten da:

Maila:	Egokia
<b>Iraupena</b>	Gai-zerrenda eta aurreikusitako jarduerak garatu daitezke eta, beraz, helburuak lortu daitezke.
<b>kronograma</b>	Ondo adierazten da egitaraua eta egingo diren jarduerak, eta erlazio hori zuzena da. Zehazten da nola banatzen den jarduerak (jardunaldiak / saioak /zatiak) eta nola kokatzen diren ekintzak eta atsedenaldiak.

## Gutxienezko maila edo konfigurazioa

### 2.- Edukiak:

Funtsezko elementua da prestakuntzako diseinuan. Gai-zerrenda, bere luzapena eta antolakuntza, bere helburuekiko koherentzia; prestakuntza-jarduerarako berriarazotasuna eta eguneratzea; bere diseinu pedagogikoa hartuko dira kontuan. Erdietsi behar diren gutxienezko maila edo konfigurazioa jarraian adierazten da:

Maila:	Egokia
<b>Gai zerrenda</b>	Gaiak eta helburuen arteko elkarrekotasun argia eta osoa ikus daiteke, nahiz eta gaiak modu orokorrean agertu. Gaiak kopurua egokia da. Informazioa eta aipatutako bibliografia eguneratuta dago, azkeneko berriak agertzen ez badira ere.
<b>Edukiak</b>	Informazioa eta aipatutako bibliografia eguneratuta dago, azkeneko berriak agertzen ez badira ere. Ez dago hutsik, ez edukien faltak. Hurrenkera logikoa da, informazioa ulertzen da eta irizpide didaktikoak erabiltzen dira. Posible da jarduerarako propio diseinatu ez diren eduki eta materialak erabiltzea.

### Gutxieneko maila edo konfigurazioa

#### 3.- Irakaslearen profila.

Irakasleak esperientzia izan behar du jorratuko duen ezagupen eremuan. Ondo legoke irakasle moduko eskarmentua izatea ere. Erdietsi behar diren gutxieneko maila edo konfigurazioa jarraian adierazten da:

Maila:	Egokia
<b>Titulu akademikoa</b>	Titulazio profesionala eta espezializazioa (berau existitzekotan) du nahikorik prestakuntzako edukia eta helburuekin lotzen diren kompetentziak aurrera eramateko.
<b>Esperientzia</b>	Esperientzia profesionala nahikoa du irakasten duen ezagupen eremuan.

### Gutxieneko maila edo konfigurazioa

#### 4.- Irakasle / ikasleen arteko proportzioa:

Eskabidean adierazi den prestakuntzako diseinua eta metodologiari begira aztertuko da. Elkarren arteko komunikazioa eta beharrezko feedback nahikoa posible izan behar da. Erdietsi behar diren gutxieneko maila edo konfigurazioa jarraian adierazten da:

Maila:	Egokia
<b>Irakasle / ikasleen arteko arrazioa</b>	Lortu nahi diren helburuak eta adierazi diren metodologia didaktikoak kontuan harturik, irakasleko ikasle kopuru egokia izan behar da haien arteko elkarreragilea izateko, prestakuntza teorikoan zein praktikoan.

### Gutxieneko maila edo konfigurazioa

#### 5.- Baliabideak

Altzariak, aparailuak, produktuak, simulagailuak, dokumentuak, laguntzarako pertsonak, etab., egokiak izan behar dira kopuruan, gisan eta eskuragarritasunean, parte-hartzaileek erabiltzeko, eta koherenteak izan behar dira lortu nahi diren helburuekin eta erabiliko diren metodologia didaktikoeekin. Erdietsi behar diren gutxieneko maila edo konfigurazioa jarraian adierazten da:

Maila :	Egokia
<b>Giza baliabideak</b>	Behar denean beste profesionalak agertu behar dira: administrariak informatikariak, teknikariak, etab. Kopuru egokian, prestakuntza jarduera aurrera eramatea posible egiten dute.
<b>Bestelako baliabideak</b>	Zehaztu egiten dira eta nahikoak dira kopuru eta moduan, aurreikusitako prestakuntza ekintzak eta metodologia didaktikoak garatzeko.

**Gutxienerako maila edo konfigurazioa**

**6.- Irakasleak hautatzeko metodoa**

Lehentasunak ezar daitezke parte-hartzaileak modu egokian aukeratzeko:

Maila:	Egokia
<b>Parte-hartzaileak aukeratzeko irizpideak</b>	Titulu akademikoa zein lan esparrua zehazturik dago. Lehentasunak zehaztu daitezke prestakuntza jarduera motibatu duten beharrak konpontzeko eta prestakuntzari etekin handiagoa ateratzeko.

**Eta azkenik nola puntuatzen da:**

- 0.0 *Batere edo batek bakarrik hurrengo elementuen artean erdiesten du gutxienerako maila: **Jardueraren iraupena, Edukiak, Irakaslearen profila, Irakasle / ikasleen arteko proportzioa, Baliabideak eta Irakasleak hautatzeko metodoa***
- 0.1 *Adierazitako hurrengo elementuetatik **jardueraren iraupena eta edukiak** lortzen dute gutxienerako maila.*
- 0.2 *Aurrekoan zehaztutako elementuak eta **Irakaslearen profila** lortzen dute gutxienerako maila.*
- 0.3 *Aurrekoetan zehaztutako elementuak eta **Irakasle / ikasleen arteko proportzioa eta baliabideak** lortzen dute gutxienerako maila*
- 0.4 *Aurrekoetan zehaztutako elementuak eta **Irakasleak hautatzeko metodoak ere** lortzen dute gutxienerako maila.*